

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

## EUSKO JAURLARITZA

## EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## Arabako Lurralde Ordezkaritza

**Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 19koa, Arabako lurralde-ordezkariera, zeinaren bidez honako hau baimentzen baita, proiektua onartzen da eta onura publikokoa dela deklaritzen: Berantevillako udalerrian (Araba), Berantevillako herrigunean, petrolio-gas likidotuak (PGL) tanga finkoan biltegitatu eta gas propano kanalizatua banatzeko sarea**

Espediente zk.: 01CGY 202000004.

## Aurrekariak

1. 2020ko abuztuaren 26an, Ned Suministro GLP SAK administrazio-baimena, proiektua onartzea eta onura publikoaren deklarazioa eskatu zituen Berantevillako udalerrian (Araba), Berantevillako herrigunean, petrolio-gas likidotuak (PGL) tanga finkoan biltegitatu eta gas propano kanalizatua banatzeko sarea instalatzeko.

2. Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legean aurreikusitakoaren ondorioetarako, informazio publikoaren izapidea bete zen espedientean, haren iragarkia honako hauetan argitaratu baitzen: Berantevillako Udalaren iragarki-oholean; 2020ko abenduaren 11ko ALHAOn; 2020ko abenduaren 14ko EHAAAn; 2020ko abenduaren 1eko Diario Noticias de Álava egunkarian eta 2020ko abenduaren 2ko El Correo egunkarian.

3. Informazio publikoaren izapidea egiten ari zelarik, 2020ko abenduaren 14an sail honek Berantevillako Udalari proiektuaren separata bat bidali zion, eta udal horrek ez zuen baldintza teknikorik aurkeztu epe barruan. Orobat, separatat bidali ziren Arabako Foru Aldundiko Azpiegitura eta Mugikortasun Sailera, 2020ko abenduaren 14an, eta hark ere ez zuen baldintza teknikorik aurkeztu epe barruan.

## Zuzenbideko Oinarriak

1. Gasa banatzeko sareak eraiki aurretik administrazio-baimena eskatu beharra honako hauek xedatzen dute: Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legea; Erregai Gaseo-soak Erabili eta Banatzeko Erregelamendu Teknikoa onartzen duen uztailaren 28ko 919/2006 Errege Dekretua; eta Kanalizatutako gasaren zerbitzu publikoaren instalazioei baimena eman eta horiek jardunean jartzeari buruzko ekainaren 9ko 107/1998 Dekretua.

2. Urriaren 7ko 34/1998 Legeak deklaritzen du onura publikokoak direla legearen IV. tituluan aipatzen diren instalazioak, hau da, gas erregaiak kanalizazio bidez hornitzeko instalazioak.

3. Ebazpen hau ematen da, bat etorritz Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariaren 2018ko martxoaren 16ko Ebazpenarekin, zeinaren bidez Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko lurralde-ordezkaritzen esku uzten baita energiaren, industria-administrazioaren eta industria-segurtasunaren arloetako zenbait gairi buruzko eskumena.

Aipatutako lege-xedapenak ikusita, eta oro har zein zehazki aplikagarri diren gainerakoak oinarri hartuta, Arabako lurralde-ordezkariek hau

## Ebazten du

1. Baimena ematea Ned Suministro GLP SA enpresari Berantevillako udalerrian (Araba), Berantevillako herrigunean, eta dagokion egikaritze-proiektua onartzea, petrolio-gas likidotuak (PGL) tanga finkoan biltegitatu eta gas propano kanalizatua banatzeko sarea instalatzeko.

2. Baimentzen den instalazioa onura publikokoa dela deklaratzeko; izan ere, deklarazio horrek berekin dakar, urriaren 7ko 34/1998 Legearen 105. artikuluan xedatutakoaren indarrez (1998ko urriaren 8ko BOE), eraginpeko ondasunak okupatu edo eskubideak hartu beharra; eta, halaber, haien premiazko okupazioa egitea dakar, bai eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikulua premiaz okupatzeko deklaraziorako xedatzen dituen ondorioak zehaztea ere.

Ebazpen hau ematen da, 107/1998 Dekretuan xedatutakoaren arabera eta baldintza orokor hauek kontuan hartuz:

1. Baimentzen den instalazioa egin beharko da proiektu honen arabera: «Administrazio-baimenaren eta instalazio-eraikuntzaren proiektua: Berantevillako udalerrian (Araba), Berantevillako herrigunean, petrolio-gas likidotuak (PGL) tanga finkoan biltegitatu eta gas propano kanalizatua banatzeko sarea», zeinaren egilea Ángel Casas Bachiller industria-ingeniarria baita.

2. Instalazioek bete beharko dute, batetik, Erregai Gaseosoak Erabili eta Banatzeko Erregulamendu Teknikoan eta haren jarraibide tekniko osagarrietan ezarritakoa (uztailaren 28ko 919/2006 Errege Dekretua) eta, bestetik, egoki diren bestelako xedapen eta arau teknikoak.

3. Dagokion baimena lortu beharko da, onartutako proiektuan dauden oinarritzko datuak aldatzeko.

4. Baimendutako instalazioa egiteko, hiru urteko epea egongo da, baimena ematen den egunetik aurrera.

5. Urriaren 7ko 34/1998 Legearen 73.4 artikulua arabera, Ned Suministro GLP SAK 2 hilabeteko epea izango du 4.141,24 euro-ko fidantza ezartzeko, betebeharrak beteko dituela bermatzeko.

6. Indarrean dauden xedapenen arabera instalazioetan egin behar diren azterketak, entseguak eta probak, orokorrak nahiz partzialak izan, Arabako Lurralde Ordezkaritzari jakinarazi beharko zaizkio, behar besteko aurrerapenaz.

7. Instalazio-lanak amaituta, Arabako Lurralde Ordezkaritzan honako agiri hauek aurkeztu behar dira: obra-zuzendaritzako ziurtagiriak; proben aktak, erregistro grafikoak barne; eta as-built planoak.

8. Ned Suministro GLP SAK instalazioak amaituta daudela jakinarazi beharko dio lurralde-ordezkaritzari honi, beronek behin betiko gainbegiratu eta martxan jartzeko akta egin dezan, hori barik ezin izango baita martxan jarri.

9. Baimen hau emateak ez du ezertan eragotziko lanak egiteko beharrezkoak diren bestelako baimenak edo lizentziak eskuratu beharra (udalena, probintzienak edo beste batzuenak); izan ere, eskatzailea ez dago salbuetsita horiek eskuratzeko obligaziotik.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta beronen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioko Industriako sailburuordeari, hilabeteko epearen barruan, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 19a

*Arabako lurralde-ordezkarria*  
**JESÚS PASCUAL LORENTE**